

BEKA OROKORRAK

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Edukia

BALDINTZA OROKORRAK	1
<i>ZER BEKA ESKA DITZAKET?</i>	<i>1</i>
<i>NOIZ ESKATZEN DIRA?</i>	<i>1</i>
<i>NOLA ESKATZEN DIRA BEKA HORIEK?</i>	<i>1</i>
HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOAREN BEKA	2
<i>NORK ESKA DEZAKE MINISTERIOAREN BEKA?</i>	<i>2</i>
<i>ZER BALDINTZA EKONOMIKO BETE BEHAR DIRA?</i>	<i>2</i>
<i>(INFO +): KONTSULTATU.....</i>	<i>2</i>
<i>ETA ZER IRAKASKUNTZA BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?</i>	<i>2</i>
<i>(INFO +) KONTSULTATU.....</i>	<i>2</i>
<i>ZENBAT EMANGO DIDATE BEKAREKIN?</i>	<i>2</i>
<i>HAUTATU BEHAR DUT ZER BEKA MOTATARA SARTU?</i>	<i>3</i>
<i>ZENBAT KREDITU MATRIKULATU BEHAR DITUT?</i>	<i>3</i>
<i>KONTUAN HARTZEN DA JOAN DEN IKASTURTEKO NIRE BATEZ BESTEKO NOTA?</i>	<i>3</i>
<i>ZENBAT URTEZ IZAN NAITEKE BEKADUN?</i>	<i>3</i>
<i>BEKA EMANGO DIDATE IKASKETEZ ALDATZEN BADUT?</i>	<i>3</i>
<i>BEKA IRAKASGAI ERREPIKATUETARAKO ERE BADA?</i>	<i>3</i>
<i>NOIZ JAKINGO DUT BEKA EMAN EDO UKATU DIDATEN?</i>	<i>4</i>
<i>KASUREN BATEAN BEKAREN ZENBATEKOA ITZULI BEHARKO DUT?</i>	<i>4</i>
NAFARROAKO GOBERNUAREN BEKA OROKORRA	4
<i>NORK ESKA DEZAKE BEKA?</i>	<i>4</i>
<i>ZER KASUTAN EZ DA BEKARIK EMANGO?</i>	<i>4</i>
<i>ZER IRAKASKUNTZA BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?</i>	<i>5</i>
<i>NOLA ESKATZEN DA BEKA?</i>	<i>5</i>
<i>ESKAERA NUPEN AURKEZTU BEHAR DA?</i>	<i>5</i>

BEKA OROKORRAK

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

BALDINTZA OROKORRAK

Zer beka eska ditzaket?

Nafarroan erroldatua bazaude eta aurreko urtean PFEZa Nafarroan ordaindu baduzu, [Hezkuntza Ministerioaren](#) eta [Nafarroako Gobernuaren beka](#). Nafarroakoa eskatzeko, Ministerioarena ere eskatu behar duzu (salbuespenak izan ezik).

Euskal Autonomia Erkidegokoa bazara, Eusko Jaurlaritzaren beka. Beste erkidego batekoa bazara, Hezkuntza Ministerioaren beka eta zure erkidegoko beka, halakorik badago.

Noiz eskatzen dira?

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bekak eskatzeko epea abuztuaren erdialdean zabaldu eta urriaren erdialdean itxi ohi da. Eusko Jaurlaritzaren beka eskatzekoa ere garai horretan amaitzen da. Nafarroako Gobernuak, aldiz, urriaren amaiera arteko epea eman ohi du.

Nola eskatzen dira?

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bekak eskatzeko, online inprimaki bat bete behar duzu Ministerioaren webgunean. Beka zertarako eskatu nahi duzun, horri buruzko datu guztiak eman beharko dituzu; adibidez, egoitzarako diru-laguntza eskatzen baduzu, ikasturtean izango duzun helbidearen datuak eta alokatzailearen datuak eman beharko dituzu. Beka eskatzen duzun lehen aldia bada, erregistratu egin behar duzu aldez aurretik.

Gogoan izan eskaerak aurkezteko epea bukatu arte nahi adina aldiz aldatzen ahalko dituzula datuak; horretarako, eskaera bat bete beharko duzu aldiro.

Unibertsitatean ez duzu dokumenturik aurkeztu behar, non eta ez zauden beka aurkezteko frogagirian aipatzen diren egoeretako batean.

[Eusko Jaurlaritzaren](#) eta [Nafarroako Gobernuaren](#) bekak on line betetzen dira. Hala ere, Eusko jaurlaritzaren kasuan, dokumentu inprimatua dokumentazio osagarriarekin batera aurkeztu behar da NUPeko Beka bulegoan.

Joan den ikasturtean beka eskatu nuen. Aurten berriro eskatu beharko dut?

Bai, beka ikasturte bakoitzean eskatu behar da.

HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOAREN BEKA

Nork eska dezake Ministerioaren beka?

Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

- Espainiar nazionalitatea edukitzea.
- Espainiako egoiliar iraunkorra izatea edo Espainian beregain edo besteren kontura lan egiten duen langilea zarela egiaztatzea. Matrikularako beka lortu nahi dutenek ez dute zertan baldintza hori bete, baldin eta Europar Batasuneko kidea den estatu bateko nazionalitatea badute eta, beraz, atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZ).
- Tituluaren jabe ez izatea, edo, beka zein ikasketetarako eskatzen den, ikasketa horien maila berekoa edo goragokoa den titulu bat erdiesteko legezko eskakizunak ez betetzea. Adibidez, lizentziaduna bazara, ezingo duzu eskatu graduiko ikasketak egiteko beka bat.
- NUPeko graduiko edo masterreko ikaslea izatea, edo matrikulatuta egotea graduiko titulua eskuratzeko kreditu osagarrietan. Beka hau ez da doktoretzako, titulu berekietako eta espezializazio tituluetako ikasleentzat.

Zer baldintza ekonomiko bete behar dira?

Aurreko ekitaldi fiskalean ikaslearen familia unitateak izan dituen diru-sarreraren arabera ematen da beka. Hezkuntza Ministerioak eskatzailearen familia unitateari buruz Ogasunak emandako datu ekonomikoak gurutzatzen ditu, eta egiaztatzen du deialdian ezarritako mugen barruan sartzen diren edo ez.

(info): Kontsultatu [Baldintza ekonomikoen taula](#)

Eta zer irakaskuntza baldintza bete behar dira?

Graduko ikasle berriek gutxienez ere 5,0eko sarrera nota izan behar dute matrikulako beka bat eskuratzeko, eta gutxienez ere 6,5eko sarrera nota bat bekaturiko gainerako kontzeptuak eskuratzeko. Sarbide nota kalkulatzeko orduan, ez da aintza hartzen selektibitatearen aldi espezifikoak.

Profesionaltzen duen master batera sartzen diren ikasleek gutxienez ere 6,5eko nota izan behar dute aurretiazko ikasketetan, edo 7koa gainerako masterretarako. Ondorio hauetarako, irakaskuntza teknikoaren batez besteko notak 1,17 koefizientearekin biderkatuko dira.

Graduko bigarren ikasmailetakoa eta ondokoetakoa ikasleei dagokienez, ezagutza adarraren arabera aldatzen dira eskakizunak. Honako taula honetan aurkituko dituzu.

(info +) Kontsultatu [Irakaskuntza baldintzen taula](#)

Zenbat emango didate bekarekin?

Beken zenbatekoak honako hauek izango dira:

- Doako matrikula: lehen aldiz matrikulaturiko kredituen prezio publikoa estaltzen du.
- Errentari loturiko zenbateko finko bat: 1.600 €.
- Ikasturte bitarteko egoitzari loturiko zenbateko finko bat: 1.500 €.

Zenbateko aldakor bat, batez besteko notaren eta familia errentaren haztapenaren ondorioz aterako dena. Gutxienezko zenbatekoa 60 € izango da.

Nik aukeratu behar dut beka mota?

Ez, Ministerioak berak erabakiko du zenbateko beka emango duen eskatzailearen egoera pertsonal, akademiko eta ekonomikoa aintzat hartuta.

Zenbat kreditu matrikulatu behar ditut?

60 kreditu matrikulatzen badituzu, kontzeptu guztietarako eskubidea izango duzu diru-sarrera familiarren eta irakaskuntza baldintzen arabera.

Baina, matrikula partziala egiten baduzu, hau da, 30 eta 59 kredituren artean matrikulatzen badituzu, matrikulako beka eta gutxienezko zenbateko aldakorra (60 €) bakarrik lortu ahalko duzu.

Kontuan hartzen da aurreko ikasturtean izan nuen batez besteko nota?

Bai, aurreko ikasturtean gainditu zenituen irakasgaien batez besteko nota eta gainditu zenuen kreditu kopuruaren portzentajea hartzen da kontuan.

Zenbat urtez izan naiteke bekadun?

Ingeniaritza bat ikasten ari bazara, 6 urtez izan zaitezke bekadun. Gradu gainerako ikasketetan, 5 urtez. Salbu eta matrikula partzialeko ikasleak, beste urtebetez izan baitaitezke.

Eta ikasketak aldatzen badituz?

Bekadun gisa osorik edo partzialki egin dituzun ikasketak utzi eta beste ikasketa batzuekin hasten bazara, ezingo duzu bekarik eskuratu ikasketa berrietarako, bekadun izanik utzi zenituen ikasketetan egingo zenukeen kreditu kopurua baino gutxienez 30 kreditu gehiago matrikulatuta dituzun arte.

Beka irakasgai errepikatueterako ere bada?

Ez, aurreko ikasturtean irakasgairen bat gainditu ez bazenuen eta irakasgai horretan berriz matrikulatzen bazara, beka ez du irakasgai hori diruz lagunduko.

Noiz ematen du ebazpena Ministerioak?

[Mezu elektronikoa bat jasoko duzuecibirás](#) beka eskaeran adierazi zenuen helbide elektronikoan, eta hor aditzera emango dizute jakinarazpen bat daukazula Ministerioaren aplikazioan. Webguneko aplikazio horretan sartu behar duzu zure pasahitzarekin, eta beka eman edo ukatu zaizula dioen gutuna deskargatu. Abenduaren bukaeran eman ohi dute ebazpena.

Ebazpen hori ez duzu Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkeztu beharrik, Unibertsitateak ere jasotzen baitu.

Kasuren batean bekaren zenbatekoa itzuli beharko dut?

Bai, Ministerioak honako kasuetan eskatu ahal dizu bekaren zenbatekoa itzultzeko:

- Matrikula ezabatu baduzu.
- Bai, baldin eta matrikulatutako kredituen % 50 edo % 40 gainditu ez baduzu (kasu bakoitzean, behar dena), ez ohiko deialdian ezta ohiz kanpoko deialdian ere (ez dira kontuan hartzen baliokidetu edo aitortu egin diren kredituak). Laguntza kontzeptu guztiengatik jaso duzun zenbatekoa itzuli beharko duzu, matrikularako bekari dagokiona ez beste.
- Beka bat jaso baduzu proiektu bat egiteko, eta ez baduzu huraxe bi urteko epean aurkeztu beka eman zizutenetik.

NAFARROAKO GOBERNUAREN BEKA

Nork eska dezake beka?

[Nafarroako Gobernuaren Beka](#) amak, aitak edo legezko tutoreak eskatu behar du, seme-alabek 30 urte baino gutxiago dituztenean eta haiekin bizi direnean, ez bada hauek beste familia unitate bat eratu dutela (bekak bat betetzen da familia unitateko), edo ikasleak berak eskatzen duela, aurreko leerroaldean sartzen ez diren kasuetan.

Deialdia graduako, lizentziaturako, ingeniarietako edo masterreko ikasleentzat da, eta tituludunendako egokitzapen ikastaroetarako ere bai. Gainera, honako baldintza hauek bete behar dituzu:

- Nafarroan erroldatua egotea eta bertan bizitzea aurreko urtean eta gaur egun.
- Iaz, PFEZa Nafarroan ordaindu izana.
- Hezkuntza Ministerioari beka eskatu izana (eskatzen diren baldintzak betetzen badira eta beka kanporatua ez izana).

Zer kasutan ez da bekarik emango?

Ez da beka ematen bigarren gradu, diplomatura, lizentziatura edo master bat ikasteko, ezta ikasketez aldatzeko ere, ez badakar maila edo ikasmilaren sustapenik.

Zer irakaskuntza baldintza bete behar dira?

Gutxienez ere 60 kreditutan matrikulatu behar duzu. 30 eta 59 artean matrikulatzen bazara, beka lortu ahalko duzu, baina bakarrik matrikularako eta garraiorako. Holakoetan, hurrengo ikasturtean beka mantentzeko, matrikulatutako guztia gainditu beharko duzu.

Nolanahi ere, aurreko ikasturtean gutxieneko kreditu kopuru bat gainditu beharko duzu, ezagutza adarraren arabera.

Nola eskatzen da?

On line, www.navarra.es webgunean. Zure familiaren datuak bete behar dituzu, eta beka zertarako eskatzen duzun esan: matrikula, garraioa, jangela, egoitza edo ohiz kanpoko laguntza.

[Aurkeztu beharreko dokumentazioa](#) eskaneatuta erantsiko da beka eskaeraren inprimakia betetzeko unean.

Ez da beharrezkoa eskabide eredia inprimatzea, ezta fisikoki inon aurkeztea ere.

Eskaera NUPen aurkeztu behar da?

Ez, ez da beharrezkoa.